



G.- UDAL-JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO USTIAPEN BEREZIAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ZERGA-ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua.-

Lurralde Historikoko Tokiko Ogasunak Arautzeko Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera, udal-jabari publikoaren erabilera pribatibo edo ustiapen bereziagatik eranskinean zehaztutako tasak eta, ordenantza honetan azaldutako arauen arabera, osagai dituzten tasak ezarri eta eskatzen ditu udal honek.

2. artikulua.-

Ordenantza udaleko lurralde-eremu osoan ezarriko da.

II. ZERGA-EGITATEA.

3. artikulua.-

Udal-jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo ustiapen berezia izango da zerga-egitatean.

III. SUBJEKTU PASIBOA.

4. artikulua.-

1. Zergadun moduan, Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33. artikuluan aipatutako pertsona fisiko zein juridikoak eta erakundeak izango dira subjektu pasiboak, betiere, udal-jabari publikoa euren onurarako erabili edo modu berezian ustiatzen badute.

2. Ibilgailuek edo gurdiak espaloietan zehar egindako sarreren ondorioz eta haien eraikuntzaren, artapenaren, aldaketaren edo desagerpenaren ondorioz udal-jabari publikoaren erabilera pribatibo edo ustiapen bereziagatik ezarritako tasetan, zergadunen ordezkioak izango dira ibilgailuentzako sarrera horiek dituzten lokal eta finketako jabeak, eta, hala badagokio, kasuan kasuko onuradunei jasanaraziko dizkiete kuotak.

3. Administrazio publikoek, autonomia-erkidegoek eta tokiko erakundeek ez dute jabari publikoaren erabilera pribatibo edo ustiapen bereziagatik tasarik ordaindu behar, zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio-zerbitzu publikoen berezko ustiapenen eta herritarren segurtasunerako edo defentsa nazionalerako garatutako guztien ondorioz.

5. artikulua.-

Kasuan kasuko lizentziak lortzen dituztenek edo, besterik adierazi ezean, ustiapenari onura ateratzen diotenek ordainduko dituzte tasak.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK.

6. artikulua.-

Ezari beharreko xedapen orokorretan xedatutakoaren arabera emango dira salbuespenak edo beste zerga-onura batzuk.

V. ZERGA-OINARRIA.

7. artikulua.-

Jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo ustiapen berezia gauzatzen deneko unitate bakoitza izango da zerga-oinarria, eranskinean azaldutako baldintzak kontuan hartuta.

VI. KUOTA.

8. artikulua.-

1. Eranskinean xedatutakoaren arabera, tarifa ezartzean sortutako zenbatekoa, horretarako zehaztutako zenbateko finkoa edo bi prozedurak batera ezartzean sortutako zenbatekoa izango da zerga-kuota.

2. Erabilera pribatiboaren edo ustiapen bereziaren ondorioz tokiko jabari publikoa hondatu edo narriatu egiten denean, onuradunak, kasuan kasuko tasaren ordainketari inolako kalterik egin gabe, berreraiki edo konpontzeagatiko gastu guztien kostua itzuli eta zenbateko hori gordailatu beharko du alde aurretik.

Kalteok konponezinak izango balira, hondatutako ondasunen balioaren edo kaltetutakoaren narriaduraren zenbatekoaren baliokidea den kalte-ordaina jasoko luke udalak.

Udalak ezin izango ditu idatz-zati honetan aipatutako kalte-ordainak eta itzulketak barkatu ez oso-osorik ez zati batez.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA.

9. artikulua.-

1. Bere zerga-egitatearen ezaugarriak kontuan hartuta, tokiko jabari publikoaren erabilera pribatibo edo ustiapen bereziagatiko tasa erabilera pribatiboa edo ustiapen berezia hasten denean sortuko da, eta zenbatekoa oso-osorik edo zati batez alde aurretik gordailatzeko eskatu ahal izango da. Bestela, jarduketari edo espedienteari hasiera ematen dion eskabidea aurkezten denean ere sortuko da, baina ez da ordaindu arte egingo edo bideratuko.

2. Tasaren ezaugarri materialen ondorioz tasa bera aldian-aldian sortu behar denean, urte bakoitzeko urtarilaren 1ean sortuko da, eta zergaldia urte naturala izango da, betiere, erabilera pribatiboa edo ustiapen berezia hasi edo eteten ez bada. Halakoetan, inguruabar horren arabera izango da zergaldia, eta kuota bera hainbanatuko da eranskinean zehaztutako baldintzak kontuan hartuta.

3. Subjektu pasiboaren errua ez diren arrazoiengatik jabari publikoa erabiltzeko edo ustiatzeko eskubidea bete edo garatzen ez denean, kasuan kasuko zenbatekoa itzuliko da.



VIII. LIKIDAZIOA ETA DIRU-SARRERA.

10. artikulua.-

Udalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidatutako zenbatekoa eskudirutan ordainduko da, eranskinean bertan ordainarazpenari buruz zehaztutako arau partikularrak kontuan hartuta.

IX. TASEN KUDEAKETA.

11. artikulua.-

Ordenantza honetan araututako taseen likidazio, bilketa eta ikuskapenarekin, zerga-arloko arau-hausteen sailkapenarekin eta kasuan kasuko zigorren zehaztapenarekin zerikusia daukan guztian, Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean aurreikusitakoa hartuko da kontuan.

X. AZKEN XEDAPENA.

Ordenantza hau eta bere eranskina 2000ko urtarrilaren 1ean sartuko dira indarrean, eta aldatzeko edo indarrik gabe uzteko erabakia hartu arte egongo dira indarrean.



ERASKINA

I. Udal lonja eta lokalen aprobetxamendua

- Lonjako 78,25 €/hilabete
- Lokaleko 107,20 €/urte

II. Kalez kaleko merkatuaren aprobetxamendua

- Postu soilak (4 m lineal baino gutxiago) 10€ /egun
- Postu bikoitzak (4 m lineal baino gehiago) 12€ /egun

III. Kalean eraikuntzako materiala, hondakinak, hesiak, aldamiok, eskorak eta edukiontziak kokatzea

1. Jabari publikoaren okupazioa hiru gunetan egongo da banatuta:

A.1 Gune historikoa.

A.2 Hiri-lurzoru moduan sailkatutako udal-mugarte osoa, Lendoñobeiti, Lendoñogoiti, Mendeika nahiz Belandiako toki-erakunde txikiagoak izan ezik.

A.3 Urbanizatu ezin daitekeen lurzoru moduan sailkatutako udal-mugarte osoa eta Lendoñobeiti, Lendoñogoiti, Mendeika nahiz Belandiako toki-erakunde txikiagoak.

2. Tarifak:

B.1 Era guztietako obren edo instalazioen aurrean jarritako hesiak, karga-jasogailuak, siloak, garabiak, obra-txabolak eta antzeko beste elementu batzuk, eraikuntza berriko obrak direnean edo eraikitako eraikinen barruko egituraren funtsezko eraldaketa denean, m²-ko edo frakzioko eta hileko edo frakzioko eta bide publikoaren kategoriaren arabera:

- A.1 9,00 €
- A.2 6,00 €
- A.3 3,50 €

B.2 Aurreko idatz-zatian aipatutakoak ez beste obra batzuetan jarritako elementu berberak (fatxaden, teilatuen... zaharberrikuntzak, eraldaketak...), m²-ko edo frakzioko eta hileko edo frakzioko eta bide publikoaren kategoriaren arabera:



- A.1 25,00 €
- A.2 17,00 €
- A.3 10,00 €

B.3 Aldamioak, biserak, erretiluak eta antzeko beste elementu batzuk, bide publikoan bermatuta daudenean eta beheko aldetik igaro daitekeenean, m²-ko edo frakzioko eta hileko edo frakzioko eta bide publikoaren kategoriaren arabera:

- A.1 5,00 €
- A.2 3,50 €
- A.3 2,00 €

B.4 Elementu berberak, hegal eginez jarrita daudenean eta beheko aldetik igaro daitekeenean, m²-ko edo frakzioko eta hileko edo frakzioko eta bide publikoaren kategoriaren arabera:

- A.1 4,00 €
- A.2 3,00 €
- A.3 1,50 €

B.5 Aurreko zenbakietan araututako tarifen gutxieneko zenbatekoa 12,30 eurokoa izango da.

B.6. 10 egun baino gutxiagoko epe-zatikien likidazioetan metro karratu eta egun bakoitzeko tarifa bakarra ezarriko da, honen arabera beti ere:

- A.1: 0,90 euro.
- A.2: 0,60 euro.
- A.3: 0,35 euro.

3. Tarifak ezartzeko arauak:

C.1 Kasuan kasuko obra-baimenean zehaztutako amaiera-epetik hasita eta inolako justifikaziorik gabe, epigrafe honetan azaldutako obren iraupena bi hilabetetik gorako epean luzatzen bada, hirugarren hilabetetik aurrera %100eko gainordaina ezarriko da tarifetan. Era berean, obrak amaitu ondoren, jabari publikoa okupatzen jarraituz gero, obrak amaitu osteko hurrengo egunetik aurrera %200eko gainordaina ezarriko da tarifetan.



C.2 Partikularrek eskatuta eraikinetako fatxadak zaharberritzeko, garbitzeko edo margotzeko jarri beharreko hesi eta aldamiogatik tarifak %50 murriztuko dira, betiere okupaziorako epealdia hiru hilabetetik gorakoa ez bada.

C.3 Hesi eta aldamiogatik tarifak %50 murriztuko dira, betiere okupaziorako epealdia obra-baimenean zehaztutako iraunaldia baino %50 laburragoa bada.

IV. Kaleko itxiera osoa edo erdia..... 209, 80 €/egun

V. Bide publikoa okupatzeagatik balizko kalteak konpondu ahal izateko fidantza, honako formula honen bitartez kalkulatu beharrekoa:

.....Fidantzaren zenbatekoa = m^2 , m, edo unitatea X konponketaren balioa.

VI. Hilerriko emakida.

— Hilobi-kontzesioa (10 urte)..... 365,05 €
— Hezurtegi-kontzesioa (99 urte).....606,30 €
— Panteoien emakida (75 urte) metro karratuko:600,00€

VII. Erabilera publikoko lurraren okupazioa, ostalaritzako terrazan eta erakustokien erabilerarengatik

- Mahaia eta 4 aulki: 9,5 euro/hilean.
- Okupazio urriko altzariak:
1. Mahai hankabakarra:4,5 euro/hilean.
2. Kupelak:.....3,5 euro/hilean.
3. Okupazio urriko beste elementu batzuk (mahai txikia, aulki altua, taburetea, etab.):
.....2 euro/hilean elementu eta unitate bakoitzeko

Honako denboraldi hauek ezartzen dira:

- Denboraldi laburra: maiatzaren 1etik irailaren 30era.
- Denboraldi luzea: urriaren 1etik apirilaren 31ra.
- Urte osoko denboraldia: urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.



Tarifa denboraldi osorako ordainduko da, salbu eta establezimenduaren jarduera denboraldi baten epealdiaren barruan burutzen bada. Kasu horretan, establezimendua zabaltzen denetik aukeratutako denboraldiaren amaierara arte egingo da ordainketa, edo horrela ez bada, dagokion urteko abenduaren 31ra arte.

VIII. Publizitatea Udal golf eskolako instalazioetan.....250,00 €/urtean

X. Udal bide publikoen zoruan, zoru azpian edo hegalean finkatutako erabilera pribatiboa edo berezia, honako hornidura hauen zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen aldeUdalerrri bakoitzean urtero lortzen duten fakturaziotik jasotako diru-sarrera gordinen %1,5.

XI. Udal lursailak ustiatu edo erabiltzeagatik tasa

Zerga €/m² urteko:

1.- % 7ko malda edo hortik gorakoa duten landa lursailak:0,015 €/m² urteko.

2.- % 7tik azpiko malda duten lursailak:..... 0,018 €/m² urteko.

3.- Nekazaritza-instalazioak izanda, barazkigintzan edo frutagintzan jarduteko lursailak, euren aldapa mota edozein izanda ere:0,03 €/m² urteko.

4.- Aisialdirako edota autokontsumorako lursailak, euren aldapa edozein izanda ere: 0,03 €/m² urteko. Dagokion zerga ezartzearen ondorioz ordaindu beharko litzatekeen prezioa urte bakoitzeko 30 €tik azpikoa izatekotan, ezarriko den zerga urteko 30 €koa izango da.